



TOLOSAKO
UDALA

GOBERNU BATZARRA

2018.05.07

Alkatea:

Olatz Peon Ormazabal

Zinegotziak:

**Patxi Amantegi Zubiria
Nerea Letamendia Belloso
Jokin Azkue Arrastoa
Iñigo Alonso Sarasibar**

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hemezortziko maiatzaren zazpian, 08:00etan, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburua alkatea izan da, eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.

Idazkaria:

Begoña Garmendia Vazquez

Kontuhartzailea:

Ainhoa Molinos Zubiaurre

1. **Aurreko akta onartzea.**
2. **Tolosako Udaleko txistu irakaslearen eta Txistulari Bandako zuzendariaren oinarriak onartzea.**
3. **Tolosako Udalaren eta Zutani elkartearen arteko lankidetz hitzarmenaren onarpena.**
4. **19/2018 eta 20/2018 faktura-zerrendak.**

1. AURREKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2018ko maiatzaren 2an egindako batzarraren akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute akta.

2. TOLOSAKO UDALEKO TXISTU IRAKASLEAREN ETA TXISTULARI BANDA KO ZUZENDARIAREN OINARRIAK ONARTZEA.

AURREKARIAK

Lehena.- 2018ko abuztuaren 27an, Tolosako Udaleko Txistulari Bandako zuzendaria eta txistuko irakaslea den Iñaki Letamendia Loinaz jauna jubilatuko da. Honela, bere hutsunea betetzeko ordezkapena burutzea guztiz beharrezkoa da, guztia Kulturako zerbitzuburuak egindako txostenaren baitan.

Dena den, antolaketa ikuspegi batetik, komenigarria ikusi da bi lanpostuak bat egitea, kontuan hartuta lanaldi partzialeko dedikazioa dutela bi lanpostuak. Honetarako, hiru pauso emango dira bere ordezkapena egin ahal izateko.

- Lehenik, Lanpostu zerrendan laboralen plantilan dauden "Txistu irakaslea" lanpostua eta "Txistulari Bandako zuzendaria" lanpostua bat egin dira, lehena % 52ko lanaldian baitago



eta bigarrenak, aldiz, % 16ko lanaldia du; honela, 2018ko martxoaren 27an egindako Osoko Bilkuran, Udalbatzak lanpostu berria sortzea erabaki zuen, % 68ko lanaldiarekin eta Lanpostu Zerrendan aldaketa hau islatuaz.

- Bigarrenik, ondoren azalduko den bezala, legeak behin betiko izaeraz oraingoz lanpostua betetzen ez duenez uzten, lanpostu berri hau aldi baterako betetzeko deialdia egitea proposatzen da txosten honetan, 2018ko irailaren 1etik aurrera lanpostua behintzat behin-behineko izaeraz hornitua egon dadin.

- Hirugarrenik, 2019. urtean lanpostua Lan eskaintza Publikoan atera ahal izango da eta behin betiko izaeraz bete.

Bigarrena.- Aipatutako Osoko Bilkuran lanpostu berria sortu ondoren, momentu honetan lanpostua aldi baterako izaeraz hornitzeko deialdia egitea eta oinarriak onartzea proposatzen da.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

a) LANPOSTUAK BEHIN BETIKO BETETZEKO MUGAK: 2017KO ESTATUKO AURREKONTU OROKORRA

I.- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, urriaren 30ekoak, Enplegatu Publikoen Oinarriko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onartzen duenak, bere 10. artikuluan bitarteko funtzionarioen araubidea xedatzen du, honako era honetan:

1. Son funcionarios interinos los que, por razones expresamente justificadas de necesidad y urgencia, son nombrados como tales para el desempeño de funciones propias de funcionarios de carrera, cuando se dé alguna de las siguientes circunstancias:

a) La existencia de plazas vacantes cuando no sea posible su cobertura por funcionarios de carrera.

b) La sustitución transitoria de los titulares.

c) La ejecución de programas de carácter temporal, que no podrán tener una duración superior a tres años, ampliable hasta doce meses más por las leyes de Función Pública que se dicten en desarrollo de este Estatuto.

d) El exceso o acumulación de tareas por plazo máximo de seis meses, dentro de un período de doce meses.

.../...

3. El cese de los funcionarios interinos se producirá, además de por las causas previstas en el artículo 63, cuando finalice la causa que dio lugar a su nombramiento.

4. En el supuesto previsto en la letra a) del apartado 1 de este artículo, las plazas vacantes desempeñadas por funcionarios interinos deberán incluirse en la oferta de empleo correspondiente al ejercicio en que se produce su nombramiento y, si no fuera posible, en la siguiente, salvo que se decida su amortización.”



TOLOSAKO
UDALA

Beraz, aipatu Legearen 10.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, bitarteko funtzionarioen bidez hornitzen diren lanpostuak Lan Eskaintza Publikoan sartu behar dira, bitarteko funtzionarioa izendatzen den urtean edo hurrengoan, eta era finkoan hornitzen dira edota amortizatu egin behar dira.

Zentzu berean, 781/1986 Errege Dekretuak, apirilaren 18koak, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden xedapenei buruzko Testu Bategina onartzen duenak, bere 128. artikuluan xedaturikoaren arabera, Toki-Korporazioek urtero ekitaldiari dagokion Lan Eskaintza Publikoa onartu eta argitaratu behar dute, aurrekontua onartu eta hilabeteko epe barruan, funtzio publikoak ezarritako legediarekin bat etorritik. Artikulu horren 2. atalak behin betiko pertsonala izendatzeko ondoko betebeharra ezartzen du:

“2. No podrá nombrarse personal interino para plazas que no se hayan incluido en la oferta de empleo público, salvo cuando se trate de vacantes realmente producidas con posterioridad a su aprobación.

El personal que ostentare la condición de interino cesará automáticamente al tomar posesión como funcionarios de carrera los aspirantes aprobados en la respectiva convocatoria. Sólo podrá procederse al nombramiento del nuevo personal interino para las plazas que continúen vacantes una vez concluidos los correspondientes procesos selectivos.”

II.- Aldi berean, aplikatu beharreko Funtzio Publikoko araudiari dagokionean, 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, urriaren 30ekoak, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onartzen duenak, bere 7. eta 11 artikuluetan, Toki erakundeetako pertsonal laboralari dagokionez, ondokoa xedatzen du:

“Artículo 7 Normativa aplicable al personal laboral

El personal laboral al servicio de las Administraciones Públicas se rige, además de por la legislación laboral y por las demás normas convencionalmente aplicables, por los preceptos de este Estatuto que así lo dispongan.

Artículo 11 Personal laboral

1. Es personal laboral el que en virtud de contrato de trabajo formalizado por escrito, en cualquiera de las modalidades de contratación de personal previstas en la legislación laboral, presta servicios retribuidos por las Administraciones Públicas. En función de la duración del contrato éste podrá ser fijo, por tiempo indefinido o temporal.

2. Las leyes de Función Pública que se dicten en desarrollo de este Estatuto establecerán los criterios para la determinación de los puestos de



TOLOSAKO
UDALA

trabajo que pueden ser desempeñados por personal laboral, respetando en todo caso lo establecido en el artículo 9.2.”

Hortaz, kontratatzea proposatzen den langilea aldi baterako izaera duen lan kontratu bidez kontratatuko da, 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, urriaren 23koak, Langileen Estatutua arautzen duenak, bere 15. artikuluan xedatutakoaren arabera, non, bere 1. a) atalean aldi baterako iraupena duten kontratuak zerrendatzen dituenean, kasu honetan hutsik dagoen lanpostu bat ordezkatzeko kontratua aurreikusten den.

III.- Azken urteetako Estatuko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituzten Legeek Herri Administrazioetan lan eskaintza publiko bidez pertsonal berria sartzeko mugak ezarri dituzte.

2017ko ekitaldirako, 2018. urtekoa oraindik ez baita onartu, ekainaren 28ko 3/2017 Legeak, bere 19. artikuluan, Lan eskaintza publikoen inguruan ondokoa xedatzen du:

“ Uno. 1. La **incorporación de nuevo personal** en el sector público delimitado en el artículo anterior, a excepción de las sociedades mercantiles públicas y entidades públicas empresariales, fundaciones del sector público y consorcios participados mayoritariamente por las Administraciones y Organismos que integran el Sector Público, que se regirán por lo dispuesto en las disposiciones adicionales décima quinta, décima sexta y décima séptima respectivamente, de esta Ley y de los Órganos Constitucionales del Estado, **estará sujeta a los límites y requisitos** establecidos en los apartados siguientes.

2. Respetando, en todo caso, las disponibilidades presupuestarias del Capítulo I de los correspondientes presupuestos de gastos, en los siguientes sectores y administraciones la tasa de reposición se fijará hasta un máximo del 100 por ciento:

.../...

C) Fuerzas y Cuerpos de Seguridad del Estado, Cuerpos de Policía Autónoma de aquellas Comunidades Autónomas que cuenten con Cuerpos propios de dicha Policía en su territorio, y, en el ámbito de la Administración Local, personal de la Policía Local, en relación con la cobertura de las correspondientes plazas de dicha Policía.

.../...

F) Administraciones Públicas respecto del asesoramiento jurídico y la gestión de los recursos públicos.

.../...

O) Plazas de personal que presta asistencia directa a los usuarios de los servicios sociales.

.../...

S) Personal de atención a los ciudadanos en los servicios públicos.

.../...



3. En los **sectores** y Administraciones **no recogidos en el apartado anterior**, la tasa de reposición se fijará hasta un **máximo del 50 por ciento**.

4. Para calcular la tasa de reposición de efectivos, el porcentaje máximo a que se refiere el apartado anterior se aplicará sobre la diferencia resultante entre el número de empleados fijos que, durante el ejercicio presupuestario de 2015, dejaron de prestar servicios en cada uno de los sectores, ámbitos, cuerpos o categorías, previstos en el apartado anterior y el número de empleados fijos que se hubieran incorporado en los mismos, en el referido ejercicio, por cualquier causa, excepto los procedentes de ofertas de empleo público, o reingresado desde situaciones que no conlleven la reserva de puestos de trabajo. A estos efectos, se computarán los ceses en la prestación de servicios por jubilación, retiro, fallecimiento, renuncia, declaración en situación de excedencia sin reserva de puesto de trabajo, pérdida de la condición de funcionario de carrera o la extinción del contrato de trabajo o en cualquier otra situación administrativa que no suponga la reserva de puesto de trabajo o la percepción de retribuciones con cargo a la Administración en la que se cesa.

No computarán dentro del límite máximo de plazas derivado de la **tasa de reposición** de efectivos las **plazas** que se convoquen para su provisión mediante procesos de **promoción interna** y las correspondientes al **personal** declarado **indefinido no fijo mediante sentencia judicial**.

Beraz, lege honetatik ondorioztatu daiteke ezin dela 2018. urtean aipatu plaza hau behin betiko izaeraz bete, soilik behin-behineko izaeraz, eta 2019. urtean, erreposizio tasa betetzen badu Udalak, orduan hau behin betiko izaeraz hornitu ahal izango du.

IV.- Bestalde, aldi baterako izendapen zein kontratazioei dagokienez, aipatu ekainaren 27ko 3/2017 Legeak 2017. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrak onartzen ditu. Bertan, aipatu Legearen 20. artikuluko bigarren apartatuak dioenaren arabera, ezin izango da egin aldi baterako kontrataziorik, ezta bitarteko funtzionariorik izendatu ere, baldin eta ez bada salbuespenezko kasuren bat, premiazko eta atzeraezinezko beharren bati erantzuteko; gainera, mugatuko dira lehentasunezko izaera duten edo funtsezko zerbitzu publikoen funtzionamenduetan eragina duten sektore, funtzio eta kategoria profesionaletara.

Horregatik, departamentu bakoitzeko txosten/proposamenak eduki behar ditu, gutxienez, hurrengo atal hauek:

- Proposatutako nahi den kontratazioak ohiz kanpokoak izan behar du eta ez inolaz ere kasu arrunta.
- Txostenean justifikatu eta arrazoitu egin behar dira kontratazioaren premia eta geroraezintasuna.



TOLOSAKO
UDALA

- Kontratazio proposamena mugatu egin behar da lehentasunezko izaera duten sektore, funtzio eta kategoria profesioaletara. Horretarako, justifikatu egin behar da lehentasun hori, kontuan izanda dagokion departamentuan une konkretu bakoitzean dauden beharrak.

Hori guztia kontuan hartuta, Kulturako zerbitzuburuak 2018ko otsailaren 21eko txostenean aspektu hauek justifikatu ditu.

b) DEIALDIA ONARTZEKO ARAUAK

Ildo honetatik, aipatu txistu irakaslearen eta Txistulari Bandako zuzendariaren lanpostua betetzeko oinarriak prestatu dira, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutua arautzen duen urriaren 30eko 5/2015eko Errege Dekretu Legegilean oinarritzen den berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitate printzipioetan oinarrituta, aipatu langilea kontratatzeke beharra eta urgentzia justifikatu ondoren.

Zentzu berean, 9/1989 Legeak, uztailaren 6koak, Euskal Funtzio Publikoa arautzen duenak, bere 33. artikuluan ondorengoa xedatzen du: “33. atala.1. Bitarteko funtzionarioak eta aldi baterako langilegoa arauz jarritako prozedurari jarraiki aukeratuko dira, agiritasun, berdintasun, merezimendu eta gaitasun-irizpideak kontutan izanik eta ahalik eta bizkorren jokatzeko saiatuz. Dena dela, bitarteko eta aldi baterako langilegoak titulaziori buruzko eskakizun nagusiak eta aldikotasunez beteko duten lanpostura iristeko edo bete behar duten egitekorako eskatutako gainerako baldintzak bete beharko dituzte.”

c) ONARTZEKO PROZEDURA

Batetik, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 g) artikulua araberak, alkateak eskuduntza du gai hau onartzeko, baina bestetik, 2015eko uztailaren 28an Alkatezarako emandako ebazpenaren bidez, Tokiko Gobernu Batzarrean delegatu zuen oinarriak onartzeko eskuduntza; hortaz, organo honek onartu beharko ditu deialdia arautzen dituen oinarriak.

Hori guztia kontuan izanik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Lehentasunezko deklarazioa “Txistulari Bandako zuzendaria eta txistu irakaslea” hautatzeko deialdia, zerbitzua premiazkoztat eta atzeraezintzat jotzen delako.

BIGARRENA.- Onartzea lanpostu hori behin-behineko izaeraz betetzeko deialdia eta oinarriak, eta dagokion publizitatea ematea.



TOLOSAKO
UDALA

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Giza Baliabideetako Departamentuari eta Kontuhartzaitzari.

3. TOLOSAKO UDALAREN ETA ZUTANI ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENAREN ONARPENEA.

ASOCIACIÓN DE SOLIDARIDAD Y AYUDA HUMANITARIA “ZUTANI-TOLOSA” irabazi asmorik gabeko entitatea da, eta garatzen duen jarduera guztia boluntariotzan oinarritzen da, erabateko borondatezko lana egiten duten tolosarren boluntariotzan, hain zuzen.

“Zutani-Tolosa” herritarren mugimendua 2014. urtearen hasieran sortu zen, eta elkartasunezko helburuen artean, pobrezia eta bazterketa sozialaren aurka, hilero janari banaketa egiten du Tolosa udalerriko jende eta familia behartsuenen artean. Gizarte-mugimendu honek, esan bezala, lau urte daramatza lanean eta, epe horretan, aldatzen joan da, eta, gaur egun, “Zutani-Tolosa” elkartasun eta laguntza humanitarioko elkarte da. Horrela, nahiz eta elikagaien banaketa izan jarduera nagusia, ekintza-alorra zabalduz ari da Zutani-Tolosa elkarte, herritarren beharrei hobeto erantzuteko. Hala nola, jostailu-banaketarekin, pentsio baxuenak dituzten pertsona adinduei janaria etxean banatzeko lanketa, sukaldaritza tailerrak eta elikagaiak manipulatzeko ikastaroak, baratze kolektiboko tailerraren moduko ekintzekin osatzen dute beren proiektua.

Banatzen den janaria Gipuzkoako Elikagai Bankuak biltzen du, eta “Zutani-Tolosa” elkarte arduratzen da tolosarrei banaketa egiteaz. Tolosan jarduera hori burutzen duen elkarteetako bat da.

Tolosarren pobrezia eta bazterkeriaren aurka berebiziko garrantzia duen elkarte dela ulertzen du Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuetako eta Osasun Departamentuak, hain zuzen, hainbat familiari banatzen baitizkie oinarrizko beharrak asetzeko behar dituzten jakiak.

Zehazki, ondorengo datuak eman dira 2017. urteari dagokion jarduera-memorian:

- 253 familia (662 pertsona)
 - 216 emakume
 - 222 gizon
 - 0-2 urte bitarteko 46 ume
 - 2-16 urte bitarteko 178 haur eta nerabe.

Tolosako Udalak “Zutani-Tolosa” elkartearekin 2017. urtean sinatutako hitzarmenean jaso ziren konpromisoei dagokionez (hitzarmenaren 15. klausula), ondorengo ebaluazioa egiten da :

Lehenik: Elkarteak errespetatu ditu hitzarmenean jasotako klausulak. Hala, esaterako, eman beharreko zerbitzua eskaini die herritarrei, zerbitzua emateko Udalak utzi dion lokalean mantentze-lanak egin ditu eta oinarrizko sumministroak baditu, eta hizkuntza irizpideak errespetatzen ditu.



Era berean, hamabosgarren klausulan jasotzen diren konpromiso guztiak ere egoki bete ditu. Horrela, aurkeztutako gastuen-zerrendak erraz gainditzten du Tolosako Udalak ematen dion laguntza, zerbitzu osoagoa eskainiz herritarrei eta formazio eta informazio ekintzak nabarmenki indartuz 2017. urtean. Horrekin bat, 2017ko diru-sarrereren berri ematen dutenean ikusten da bide osagarriak jorratu dituztela: dohaintzak, Pintxo-Tourra eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzak, besteak beste.

Dena den, eta ikusirik indarrean dagoen diru-laguntzen prozedurak finantziario zailtasunak sortarazten dizkiola, 2018ra begira erakunde pribatuetan diru-laguntzak edo laguntza osagarriak lortzen saiatzeko programazioa indartu beharko luke. Bide hori jorratuz gero, ematen den zerbitzua osatzen jarraitzeaz gain, administrazio publikoarenganako menpekotasuna gaindituko luke, eta finantziario dinamika askeagoa jorratu, batez ere urte amaieran-hasieran sortzen zaizkion zailtasun ekonomikoei aurre eginez.

Bigarrenik: Elkartek 2017. urtean eduki dituen diru-sarrereren eta gastuen likidazioa aztertuta, baita fakturak ere, ikusten da urte amaieran 1.448,99 €-ko defizita eduki duela. Hitzarmenean jasotakoaren arabera, onartutako diru-laguntzaren % 25 pendiente gelditu zen, sarrera eta gastuen balantzearen arabera, justifikatutako defizita ordaintzeko; beraz, gehienez ere 1.750 €-koa izan behar zuen bigarren ordainketa horrek, beti ere justifikatutako defizita gainditu gabe.

Goian aipatutakoaren arabera, kasu honetan, justifikatutako defizita 1.448,9 9€-koa izan da, aurreikusitako kopurua baina baxuagoa.

Hirugarrenik: Elkartek 2017. urtean egitea aurreikusitako jarduerak burutu ditu, jarraian zerrendatzen direnak:

- Elikagaien banaketa
- Harrera zerbitzua
- Prestakuntza eta sentsibilizazioa
- Beste batzuk

Elkartek, 2018ko urtarrilaren 29ko sarrera-datarekin eta 976 zenbakiarekin eskaera aurkeztu du Tolosako Udalean, eskatuz 2018. urterako diru-laguntza hitzarmena egiteko, eta horrekin bat, 2018rako proiektu eta jarduera proposamena aurkeztu du. Bertan, ohiko elikagaien banaketaz gain, aurreko urtean jorratzen hasitako planteamendu berriak indartzea proposatzen du (diru-sarrera baxuko pertsona adinduei janaria etxean banatzeko esperientzia, onuradunei arreta eta informazio zerbitzua, elikadura egokian onuradunak hezteko tailerrak, boluntarioen prestakuntza tailerrak,...).

Gizarte Zerbitzuetako eta Osasun Departamentuak baloratzen du "Zutani-Tolosa" elkarteak bazterkeria eta pobrezia egoeran dauden tolosarrei berebiziko babesa eskaintzen diela. Horrekin bat, aurreikusten da 2018. urtean ere "Zutani-Tolosa" elkarteak beharko duela Tolosako Udalaren diru-laguntza izenduna, hain zuzen ere, diru-laguntza hori oinarritzkoa baita elkarteak bere ekimena burutzeko behar duen kudeaketa gastu nagusiei aurre egiteko. Beraz, hitzarmena ez sinatzeak "Zutani-Tolosa" elkarteak dituen gastuak ez ordaintzea ekarriko luke, eta horrekin, hileroko janari banaketa kolokan jarriko litzateke.



TOLOSAKO
UDALA

Ondorioz, behar larrian dauden hainbat familia eta, batez ere, familia horietako haurrak eta nerabeak kinka larrian geratuko lirateke, zaurgarritasun egoera larrian, beren garapen osasuntsua oztopatuz.

Horregatik guztiarengatik, gainontzeko elkarrekin batera norgehiagoka erregimenean diru-laguntza eskatu beharrean, 2018. urtean ere "Zutani-Tolosa" elkarteari zuzenean diruz laguntzea ezinbestekoa dela baloratzen du Gizarte Zerbitzuetako eta Osasun Departamentuak, tolosarren interes orokorrarentzat, alegia.

Bestalde txosten juridikoa aztertu da non agertzen den aipatutako diru-laguntza izenduna jasotzeko baldintzak betetzen dituela.

Kontuhartzaileak egindako txostenaren arabera ere, diru-laguntza hau dagokion partidan jasota dago.

Beraz, aipatutakoa kontuan izanik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Diru-laguntza zuzena ematea ASOCIACIÓN DE SOLIDARIDAD Y AYUDA HUMANITARIA "ZUTANI-TOLOSA" elkarteari 2018ko aurrekontuetako 0500.481.01.23100 partidaren kargura,, 7.000 euro, hain zuzen ere.

BIGARRENA.- Tolosako Udalaren eta Zutani-Tolosa elkartearen arteko hitzarmena onartzea.

HIRUGARRENA.- 5.250 € ordaintzea ASOCIACIÓN DE SOLIDARIDAD Y AYUDA HUMANITARIA "ZUTANI-TOLOSA"ri (hitzarmenean zehaztutako kopuruaren % 75) eta gainontzekoa diru-laguntza justifikatzen dutenean.

LAUGARRENA.- Iragarkia Diru Laguntzen Publizitate Sistema Nazionalera igortzea.

BOSGARRENA.--Diru-laguntza hau Gardentasun atarian argitaratzea.

SEIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Gizarte Zerbitzuetako eta Osasun Departamentuari eta Kontuhartzaitzari.

4. 19/2018 ETA 20/2018 FAKTURA-ZERRENDAK.

Kontuhartzaitzak **19/2018** faktura-zerrenda aurkeztu du, **98.667,81 €**-koa.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,



TOLOSAKO
UDALA

ERABAKI DU

LEHENA.-19 /2018 faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

.....

Kontuhartzaitzak **20/2018** faktura-zerrenda aurkeztu du, **560.627,57 €**-koa.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.-20 /2018 faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 09:00etan.

ALKATEA

IDAZKARIA